

## Euskal Herriko INGURUGIROA babesteko

# Lege



*Legeak Euskal Autonomi Erkidegoko industri sektore eta ekonomi jarduera gehienak ukitzen ditu, eta horrek, hemendik aurrera martxan ipini nahi den industri jarduera orok lehenik legearen bahetik igaro beharko duela esan nahi du.*

**Maider Etxaide\***


**J**oa den otsailaren 27an Eusko Legebiltzarrak ingurugiroaren babesarekin zerikusia duten alderdi nagusiak arautzea helburu duen Ingurugiroa babesteko Lege Orokorra onartu zuen. Lege hau gizarteko hainbat sektoreren arteko hika-mika eta eztabaidaren fruitua da, urte asko behar izan dituen taxutzen eta garatzen. Izan ere, 1995. urteaz geroztik ibili da lege-aurreproiektua dantzan, Eusko Jaurlaritzako Departamentu arteko Ingurugiro-Batzordearen esku. Nolanahi ere, ez da hori izan eztabaidatu den bakarra, ezen aurreko legegintzaldian gero bertan behera geratu zen beste aurreproiektu desberdin bat eztabaidatu baitzen.

Baietsitako arauak Administrazio desberdinen arteko eskuduntzak antolatzen ditu. Gainera, ingurugiroan eragina izan dezaketen jarduerak kudeatzeko prozedura zenbait zehaztu eta Administrazioaren ikuskapen eta kontrol-mekanismoak finkatzen ditu. Legeak Euskal Autonomi Erkidegoko industri sektore eta ekonomi jarduera gehienak ukitzen ditu, eta horrek, hemendik aurrera martxan ipini nahi den industri jarduera orok lehenik legearen bahetik igaro beharko duela esan nahi du.

### **Legearen eduki batzuk**

Legeak 118 artikulua ditu. Horietariko batzuek industri jarduerak

ukitzen dituzte bete-betean, beste batzuek, berriz, beste arlo batzuk hartzen dituzte, ekarpen interesgarriak eginez ia beti. Hiritarren parte-hartze eta kontrol-mekanismoak bermatzen dituztenetan, esaterako, hiritarrak duen informazioa eskuratzeko eta ekimen publikorako eskubidea (edozein hiritarrek dauka ingurugiro-arauan ezarritakoa exijitzeko eskubidea), batetik, eta, Ingurugiro-Aholkularitzarako Kontseiluaren eraketa (gizarte zibilaren parte-hartzearekin osatutakoa), bestetik, aipa daitezke. Bosgarren artikulua, bestalde, ingurugiro-politikarako tresna publiko zein ekimen pribatukoak erregulatzen ditu, esaterako, ingurugiro-babeserako jarduerak



# Orokorra

## eta bere eragina INDUSTRIAN

burutzeko finantziario-fondoan eratzeko, ingurugiro-hobekuntzak sustatzen dituen politika fiskala, ekoizgarri ezartzea, ekologistek eta sektore kritikoenek oso begi onez ikusten dituztenak, hain zuzen. Inpaktu-ebaluaziorako sistemen garapen berezia da aipatu beharreko beste puntu bat, legearen hirugarren tituluan ageri dena. Bertan hiru prozedura desberdin aipatzen dira, plan, proiektu handi eta proiektu txikietara aplikatu beharrekoak, hurrenez hurren. Inpaktu-ebaluazioa proiektu eta planen aplikatzea berrikuntza bikaina da, nahiz eta, ohi bezala horrek ere mugak izan: plan-mota batzuk baizik ez baitaude horretara behartuta.

### Industriak izan dezake laster zer egina

Industriari zuzendutako arteen ingurugiro-ikuskaritzari buruzko artikulua dago. Bertan, enpresa guztiek ingurugiro-legeria taxuz bete dezaten eta ingurugiroaren poluzioa txikiagotzeko helburuz, administrazio desberdinek ingurugiro-ikuskaritzak sustatu beharra aipatzen da.

Poluzioaren kontrol integratuari buruzko 39. artikulua garapen txikiak bada ere, zenbait industriarentzat erabakiorra izango da

laster. Honen bidez atmosferara, uretara eta lurzorura igorri edo botatzen diren isurkinak ekiditea, edo gutxienez murriztea, lortu nahi da. Hondakinei buruzko neurriak ere sistemaren barruan sartuko lirateke, guztia modu bateratuan kudeatuko litzatekeelarik. Baimenen arloan ere badu puntu honek zer esana, ezen lizentzia eta baimenak lortzeko beharrezko prozedura administratiboak koordinatu beharra xedatzen baita. Tamalez, horrelakoak bultzatzeko konpromezua baizik ez da azaltzen legean, horren buruztea noiz eta nola gertatuko den ikustear dagoelarik.

### Betiko eskuduntza-iltuntasuna konpondu ezinik

Legeak eskuduntza-banaketan hobekuntza handiak ekarri arren, kritika ugari jaso ditu ingurugiro-

-arloan dagoen eskuduntza- eta antolaketa-nahasmena guztiz konpontzen ez duelako. Egia da hori, alde batetik Eusko Jaurlaritzako departamentu desberdinen arteko ardura-banaketa horizontala ez duelako puskatzen eta, bestetik, zenbait arlotan, urarenean batez ere, zezenari adarretatik heltzen ez diolako eta aurreko egoera ilunak bere horretan jarraitzen duelako. Foru Aldundiek, bestalde, beren eskuduntzekin jarraitzen dute eta, zenbait kasutan gainera, baita zabaldu ere, ingurugiro-inpaktuaren arloan esaterako. Alabaina, arazoa ez da Ingurugiro-Legearena, Euskal Autonomi Erkidegoak duen instituzio-antolaketa bereziarena baino, eta hori konponezina da oraingoz.



\* HAIZEA Ikerketa eta Dokumentazio Zentroko kidea.

